


Gero eta gazte gehiagok erabiltzen dute bizikleta beren ohiko joan-etorrietan

Europako Mugikortasun Astea 2016

Europako Mugikortasun Astea irailaren 16tik 22ra arte ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadiko gazteek egiten duten bizikletaren erabilerari buruzko datuak aurkezten ditu.

2016an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 13,4k diote bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen dutela beren ohiko joan-etorrietan.

Ehuneko horrek gora egin du etengabe azken urteetan: 2004an % 4,6koa zen, 2008an % 5,3koa, 2012an % 9,6ra igo zen eta orain, 2016an, % 13,4koa da. Bidegorrien sarea gero eta handiagoa da eta bizikletak maileguan hartzeko zerbitzu publikoa eskaintzen duten herriak ere gero eta gehiago dira; bi faktore horiek lagungarri izan daitezke garraiobide horren erabileraren sustapenean.



Mutilek neskek baino askoz gehiago erabiltzen dute bizikleta. Mutilen % 19,6 normalean bizikletaz mugitzen da, nesken kasuan % 6,9 soilik.


25 urtetik gorakoen artean jaitsi egiten da ohiko joan-etorrietan bizikleta erabiltzen dutenen portzentajea. Hau da, 15 eta 19 urte bitartekoen % 15,5 egunero edo ia egunero mugitzen da bizikletaz, bai eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 16,6; baina 25 eta 29 urte bitartekoen artean bizikleta ohiko joan-etorrietan erabiltzen dutenen portzentajea % 8,8ra murrizten da.

Adin tarte zaharrenean ikus dezakegun bizikletaren erabileraren murrizketa bat dator adin tarte horretan zeregin nagusian ematen den aldaketarekin. 25 urte bete baino lehen gazte gehienek zeregin nagusia ikastea da eta ikasleen % 15,3k

normalean bizikleta erabiltzen dute ohiko joan-etorrietan. 25 urte bete ondoren gazte gehienak lanean daude eta langabezia daudenen kopurua ere handitzen da. Talde horietan bizikletaren erabilera ikasleen artean jasotakoa baino eskasagoa da: % 11,3 lanean dabilzanen artean eta % 10,2 langabeen artean.

Dena dela, alderik nabarmenena gazteak bizi diren lurraldeak erakusten du. Araban erabiltzen da gehien bizikleta, gazteen % 27,9k erabiltzen baitute bere ohiko joan-etorrietan. Ondoren Gipuzkoa dugu, bertako gazteen % 15,8k erabiltzen dute egunero edo ia egunero. Bizkaian, aldiz, gazteen kopuru txikiagoak aukeratzen du bizikleta ohiko joan-etorrietarako, % 7,5ek bakarrik.

Gazteak bizi diren udalerrien tamainaren arabera ere aldeak aurki ditzakegu. Euskadiko hiriburuetan bizi diren gazteek herri ertainetan edo txikietan bizi direnek baino gehiago erabiltzen dute bizikleta: % 18,0k hiriburuetan, % 11,5ek 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan eta gazteen % 8,7k 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan.



Aurkeztutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak eginiko inkesta baten emaitzak dira. Inkesta horretan Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarria elkarrizketatu zen. Lagin hori 1500 gaztek osatu dute (750 gizon eta 750 emakume) eta inkestan gai honi eta beste hainbat gairi buruz galdetu zitzairen 2016ko lehen hiruhilekoan. Hemen aurkeztu ditugun datuak datorren urtean "**Euskadiko gazteak 2016**" izenburuarekin argitaratuko den ikerketaren aurrerapen datu batzuk dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen bildumaren bostgarren alea izango da eta bertan, aurrekoetan bezala, 30 urtetik beherako gazteen baloreak, jarrerak, iritzia eta portaerak aztertuko dira.